

ERABAKIA, HAUTAKETA PROZESU HONETAKO EPAIMAHAIARENA: HIRUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI ESPEZIALISTEN KATEGORIAN, MEKANIKA ESPEZIALITATEAN (ERREKTOREAREN 2018ko AZAROAREN 2ko ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK SARTZEKO).

Bederatzigarren oinarri orokorrak dionez, erreklamazioetarako epea amaituta, eta erreklamaziook ebatzi ondoren, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Zerrenda argitaratzearekin batera, epaimahaiak organo eskuduneko titularrari ere helaraziko dio. Epaimahaiak ezin izango ditu deialdian ateratako plazak baino hautagai gehiago aukeratu, eta muga hori gainditzen duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Bestalde, aipatutako oinarriak dio 3. atalean prozesua amaitutakoan zerrenda bakar bat egingo dela, hautatutako pertsonen prozesuko behin betiko sailkapenean duten ordenari jarraituta. Zerrenda hori osatuko da oposizio prozesua gainditu duten pertsona guztiekin, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren arabera ordenatua, eta kontuan izan gabe zein txandatan hartu duten parte. Zerrenda egoki osatze aldera, euskarazko nahitaezko azterketa gainditu dutenei edo eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenei, GAI kalifikazioaren ordean oinarri espezifikotik hizkuntza eskakizun bakoitzerako zehaztutako puntuazioa emango zaie.

Kontuan hartua adierazitakoa, aipatutako hautaketa prozesuko epaimahaiak honako hau erabaki du, bat etorrira bederatzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta deialdiko oinarri espezifikoek zazpigarren puntuan adierazitakoarekin:

LEHENENGOA.- Teknikari espezialisten kategorian, (Mekanika espezialitatea) III. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesuan aukeratutako pertsonen zerrendari buruzko proposamena helaraztea gerenteari, bai eta eskainitako lanpostuak esleitzeko proposamena ere, erabaki honen eranskinetan jasota dagoen moduan.


BIGARRENA.- Argitaratzea aukeratutako pertsonen zerrendari buruzko proposamen hori UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp), non ikusi ahal izango den eskainitako lanpostuak esleitzeko proposamena eta adierazitako lehentasunekin batera, erabaki honen eranskinetan jasota dagoen moduan.

HIRUGARRENA.- Hogei egun naturaleko epea ematea, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita, proposatutako pertsonen beren gaitasuna egiaztatzen duten eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten dokumentuak aurkez ditzan Pertsonaleko Gerenteordetzan (UPV/EHUko Errektoregoaren eraikina, Leioa).

LAUGARRENA.- Kontuan hartuta 7.4 oinarri orokorrak dioela epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango direla Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren), administrazio bideari amaiera ematen ez dion erabaki honen kontra gorako errekursoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Errekurso hori aurkez daiteke UPV/EHUko erregistroetan edo Administrazio

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren lekuetan (39/2015 Legea, urriaren lekoa, 16.4 art.), haren azken xedapenetako zazpigarrean egiten den salbuespenarekin, erregistro elektronikoa buruzko xedapenak aplikatzen hasteko bi urteko epearen inguruan.

Leioa, 2021eko azaroaren 15a



Jorge Ezkurdia González
Epaiahako idazkaria